Sorkuntzaren bideak: Ez Dok Amairutik Kafe Antzokiara

Jose Angel Irigaray

1936-39 gerla ondoko egoera hitsean euskalduntasuna azpiraturik eta ordezkatze prozesu azkarrean zegoen hegoaldean. Maila guztietan. (Iparraldean, nahiz eskubide formalak indarrean egon, 2. mundu gerlaren ondoren higadura handiagotzen ari zen inoizko sakonen). Baina euskal kontzientzia, oraindik ere eta berriz ere, ez zen iraungia. Errauts haietatik berriz hasi zen hazten eta garatzen: lan eta ekonomiazkotik kultur dinamika anitzeraino (literatura, antzerkia, kantua, dantza, artea...) hezkuntza bideetan barna.

50eko hamarkadaren bukaera aldera eta 60ko hamarkadaren hasieran, beraz, ideia, urrats eta ekintza berriak garatzen hasi ziren. Arte plastikoetan bide aitzindariak jorratzen hasiak ziren, euskal artea, lehen aldiz, garaikide zen modernitatean, are abangoardian. Eta hor Oteiza baitezpadakoa izan zen. Ikuspegi berria ekarri zuen, begi garaikidea, eta horren ondorioz bide oparora ematen zuen atea zabaldu zen. Ilusioa piztuz, autoestimua goratuz, giro horren arrimuan bide berriak jorratzen hasi ziren. Besteak beste, kantagintzan.

Jorge Oteizak 1963an argitaratu zuen hain eragin handia ukanen zuen "Quosque tandem...!" liburua. Euskal kulturaren berpizkundea bultzatu nahi zuen eta horretarako kultur fronte bat sortzen saiatu zen. Pintura eta eskulturan taldeak sortu zituen: *Gaur* Gizpuzkoan, Bizkaian *Emen*, *Orain* Araban, Nafarroan *Danok* eta, gerorako utzia, *Baita* Iparraldean. Euskal Arte Garaikidearen Eskolaren fundazio agiria kaleratu zuen... Nahiz gauza asko eta eskola bera ez gauzatu, sekulako mugimendua eragin zuen hainbat kultur arlotan: dantza munduan, antzerkian, poesian, zineman, arkitekturan, soziologia mailan... Hor zebiltzan *Jarrai* taldea antzerkian, Nestor Basterretxeak eta Fernando Larruquert Alkezar, Pelotari eta Ama-Lur filmak egiten, *Argia* dantza taldea, *Zur-ots* poeten taldea, Luis Peña Gantxegi, Unzurrunzaga eta Garay arkitektoak...

Kantagintzari dagokionez, aire berriak zebiltzan munduan. Pop eta rockaren hastapenak, folk berritua, kantu engaiatua eta kantautoreak... Atahualpa Yupanki, Violeta Parra eta Victor Jara, Bob Dylan, Pete Seeger, Joan Baez,

Donovan, The Beatles eta The Rolling Stones, Georges Brassens, Jacques Brel, Barbara eta abar luzea. Antolamendu eta eredu mailan, baina, hemen Kataluniako *Nova Cançó* mugimenduak eragin zuzenagoa izan zuen. Publikoaren aurrean 1961ean aurkeztua, aurrerago Els Setze Jutges izena hartu zuen.

Euskal kantagintzan hedaturik zeuden koruak, zortzikoteak, kantutegi tradizionalak, musika klasikoa... Baina herri-kantuen ondarea arras murriztua zen, higatua kantatzeko ohitura. Kantagintza berriak, egoera gaindituz, dinamika berria abiarazi zuen. Herri kulturan oinarritua eta garaiko problematikan kokatua, bertan eta munduan. Biak elkarren osagarri gisan bizituz. Besteak beste, garaian aski indarrean ezartzen hasi zen kantautorearen irudia nabarmendu zen. Bakarrik oholtzan, gitarra eskuan, bizi zituen arazoen aurrean (baitakoak, ingurukoak eta nonahikoak) askatasun mezuak kantatuz.

Hor kokatzen da Ez Dok Amairu taldearen sorrera.

Dena den, taldea sortu aurretik, aire berriko zenbait bakarlari eta talde hasiak ziren zegoeneko. Besteak beste, bi pertsona dira aipagarri: Nemesio Etxaniz eta Michel Labéguerie. Azkoitiko Nemesio Etxaniz apaizak "Kanta kantari" kantutegia kaleratu zuen 1951n. Bertan, haur-jolasak, maitasun-kantak eta izadi-abestiak bildu zituen. Liburu horretan kanpotik sartzen hasiak ziren haize erdaldunen aurrean, euskal kantagintza berri bat sortu behar zela aldarrikatzen zuen, doinu zaharrak letra berri erakargarriagoz jantziz edota kantu berriak sortuz. *Ez Dok Amairu* taldea sortu aurreko bilera batzuetan parte hartu zuen eta hasierako zenbait kontzertutara ere joan zen. Michel Labéguerie uztariztarra, berriz, sendakina eta Kanboko alkatea zen. *Euskaltzaleen Biltzarra* elkartekoa, baita *Enbata* mugimenduaren sortzaileetakoa ere. Abertzale politikarekin aurkeztu-eta Frantziako Asanblada Nazionaleko diputatu izatera iritsi zen. Itzal handiko pertsona zen. Musikazale zenez, joera berriko lehen kantuak sortu zituen, arras herri tradizioan txertatuak eta molde berrian emanak. Ñabardura, baina, funtsezkoa zen: bere baitarik sortuak, itzultzen edota kopiatzen ibili gabe eta herriaren askatasun egarriarekin bat eginik. Jauzi kualitatiboa izan zen: euskaldunok ere geure kantua sort genezakeela geure baitarik, egoerari zegozkion gaiekin, garaiari zegozkion estilo, molde eta maneran. 1963an *Goiztiri* argitaletxearekin atera zituen bi disko txikiek zirrara ikaragarria eragin zuten Euskal Herriko bazter guztietan. Bai, Labéguerie euskal kantu berriaren aitapontea izan zen.

Horretaz gain, aurreko giroan beste zenbait talde ere aipatu beharko lirateke, nahiz beste ildo batzuetan barna zebiltzan: Bilboko *Soroak* taldea, Jose Antonio Billar dantzatzeko kantuekin (*Ez Dok Amairu* taldearen hasierako zenbait kantalditan parte hartu zuen) eta beste zenbait oraino.

Taldearen sorreran, aipaturik dago, Kataluniako *Nova Canç*óren eragina handia izan zen. Eta horretan baitezpadakoa Mikel Laboaren bitartekaritza lana, Bartzelona eta Donostia artean eman baitzituen 1964-65 urteak. Gehienbat lehendik garatzen hasiak ziren urratsak trinkotzeko balio izan zuen, taldea sortzeko. Lourdes Iriondo hasia baitzen zegoeneko kantari bere kasa, orobat Julen Lekuona edota Benito Lertxundi. Joxean Artze txalapartarekin zebilen grabazio esperimentalak egiten. Hainbat ildotan zebiltzan beste zenbait kulturgile ere biltzen hasi ziren, horien artean Xabier Lete. Hasierako bilerak Donostiako Kursaal antzoki zaharreko sotoetan egin ziren. 1965eko maiatzean, ikasle unibertsitarioek deituta, Jorge Oteizak hitzaldia eman zuen Bartzelonan, fronte kulturalaren ideia zabaltzeko. 1965aren bukaeran, taldearen ideia azaldu zitzaion Oteizari eta egun berean bururatu zitzaion *Ez Dok Amairu* izena: hamahiru zenbakiaren madarikazioa -herriak bizi zuen patuahautsi nahiz eta aurrera jo beharrez. Logotipoa, berriz, *Gaur* taldean zebilen Remigio Mendiburu eskultore hondarribiarrak egin zuen: txalaparta bat.

Hasieran jende asko pasatu bazen, urratsak egin ahala taldea finkatuz joan zen. Batzuk taldearen bizitza osoan, beste zenbait tarte batzuetan baizik ez. Koldo Antero (garai batean), Joxanton eta Jexux Artze anaiak, Luis Bandres, Julian Beraetxe (Baga Biga Higa garaian), Jose Antonio Billar (hasieran), Enarak taldea (garai batean), Jean Paul Harreguy (geroxeago), Juanito Iñarra (Baga Biga Higa garaian), Jose Mari Irastorza (Baga Biga Higa garaian), Joxe Angel Irigaray, Juan Migel Irigaray (Baga Biga Higa garaian), Joxe Mari Iriondo (hasieran) Lourdes Iriondo, Mikel Laboa, Julen Lekuona, Xabier Lete, Benito Lertxundi, Juan Mingo (hasieran), Nekane Oiarbide, Oskarbi taldea (garai batean), Urrikatz bikotea (garai batean), Yoloak taldea (hasieran), Jose Mari Zabala...

Lehenengo emanaldiak Jarrai antzerki taldeak antolatu zituen: Hernanin 1966ko urtarrilaren 9an eta Donostian, Victoria Eugenia Antzokian, urtarrilaren 23an. Irunen, Bellas Artes antzokian, 1966ko martxoaren 20ko jaialdian, azaldu zen lehen aldiz *Ez Dok Amairu* izena. Hasieratik nabarmendu zuen bere filosofia: kantu zaharrak berreskuratzea eta berrezagutaraztea, garaiko moldean interpretatuak, eta kantu berriak sortzea, sorkuntzari bide

ematea. Eta dena azpiegitura fisiko eta mentala garatuz, baldintzak sortuz eta hobetuz... Sorreratik beretik, bestalde, oinarrizko printzipio bat izan zuen: bakoitzak taldea aberastu behar zuen, eta taldeak bakoitza.

Hasieran, edonon eta edonola jo behar izan zen: frontoi, plaza edo areto kaxkarretan, musika ekipo kaxkarrekin, sonoritate txarreko mikrofonoekin. Baina denborak aurrera egin ahala, kantaldietan duintasun minimo bat lortzen saiatzea izan zen helburu nagusietarik bat, hau da, gutxieneko kalitate maila bat, euskal kultura garatzea, lehenengo eta behin, egiten ari zena ahalik eta hobekien egitetik hasten baitzen. Erantzukizuna, beraz, oinarri bezainbat helburu zen.

Ohiturak ez ziren aise aldatzen. Holako planteamenduen aitzinean ez ziren falta izan ikuspegi eskasak. Euskal kulturak (gaizki ulertutako) amateur-militantziaz baizik egiten ez den kultura izan behar omen zuen; erran gabe doa, frantziar edota espainiar kantariei honera ekartzean diru eskari handiak ordaintzea onartzen zen bitartean. Agiri publiko bat egin eta argitaratu behar izan zuen taldeak ("Gure jokabidearen berri", 1970eko urtarrilaren 11n *Zeruko Argia* aldizkarian, ondoko egunetan *Anaitasuna*n) afera horien eta beste zenbaiten inguruan gogoetatuz eta joera zikiragarriak kritikatuz.

Gaur begi bistakoak badirudite ere, artean ez zen hola gertatzen, zenbaiten artean bereziki. Hortik nabarmendu behar izana: herriak luzerako balioko duten kultur moldeak behar zituela; horretarako lan handia egin behar zela (doinuak, hitzak, poesiak landu, musika-tresnak erabiltzen ikasi, beste herrietan egiten denaz jabetu, gertaera sozialak aztertu); lan hori, arras maila ttipian bazen ere, ordaindu egin behar zela, artista jantziz joan ahal izan zedin. Sorkuntzarako tartea, eguneroko eginkizunetatik aparte gelditzen dena soilik baldin bazen, ezinezkoa zela axalkerietatik ateratzea. Ikastolen aldeko hamaika jaialditan ibili eta gero, askotan ezer kobratu gabe, hezkuntzaren etorkizuna ez zitekeela jaialdi hauen edota antzekoen bizkar utzi, beharrezkoa zela arlo hori lan serio eta sakonez eraikitzea...

Tartean, nola ez, egoeraren benetako agintearen aldetikako debekuak, zentsurak eta egoera zailak, ez ziren eteten. Kanpotik taigabeko presio eta erasoa eta barnetik, ez gutxitan, joera eskasak.

Hala ere, taldea aurrerabideari zerraion. Urteetan metatu eskarmentuan oinarriturik, bide berriak jorratzeko nahi eta beharra garatuz joan zen. Horrela sortu zen *Baga Biga Higa* sentikaria (Portugaleten estrainekoz eskainia,

1970eko abuztuan). Gero Euskal Herriko hiriburuetan eta hainbat herritan eskaini zena, baita kanpoan ere: Bartzelonako Romea Antzokian hiru egunez (jende eta kritikoen aburuz arrakastaz), Pauen, Brest-en (Bretainian).

Taldea, nahiz muina Donostia ingurukoa izan, Euskal Herri osokoa sentitzen zen. Ipar eta hego, dena, bere zereginen espazio naturaltzat zeukan. Iparraldeko kantariekin, adibidez (Etxamendi eta Larralde, Beñat Sarasola, Manex Pagola...), laster hasi zen harremanetan eta ugariak ziren elkarrekin ematen ziren kontzertuak. Bizkaian, esaterako, harreman jarraikia zeukan Bittor Egurrolarekin. Orobat beste zenbait kantari eta musikarirekin. Bertsolariekin ere maiz kolaboratzen zen: Xalbador, Mattin, Uztapide eta, bereziki, Azpillaga eta Lopategi. Beste kulturetako kantariak ere ekarrarazi zituen eta herrian aurkeztu (Raimon, Pi de la Serra, Guillermina Mota, Pete Seeger, Barbara Dane...).

Azkenik, erran gabe doa, taldeak arte garaikideko eskolako kideekin batera (pintore-eskultoreekin, *Argia* dantza taldearekin, *Jarrai* antzerki taldearekin, arkitektoekin, zinemagileekin...) hainbat kultur aste, ekitaldi eta egitasmotan parte hartu zuen. Garaiko kultur dinamikaren eragile ziren, hainbat non euskal kultura aitzindari eta erreferente izatea erdietsi baitzuten, are erdaldunen artean.

Komunikabideei dagokienez, *Loiola Herri Irratia* izan zen taldekoen kantuak ezagutarazten eta zabaltzen baitezpadako lana egin zuena. Bertan lan egiten zuen Joxe Mari Iriondok irratian grabatzen zituen gero irratiz emanen zituen kantuak; eta hori munta handikoa zen, hain zen eskasa oraindik diskogintza. Irratiari esker, beraz, herritarren artean ikaragarri zabaldu ziren. Beste zenbait komunikabidek ere, maila apalagoan, osagarri lana egin zuten (Segura Irratia, Jose Mª Sedano Radio Vitorian, Jose Luis Bengoa Herri Irratian eta Radio Bilbaon...). Aldizkarietan, *Zeruko Argia* eta *Anaitasuna* izan ziren, noski, gehien nabarmendu zirenak, kantagintza berria bezala aipaturiko beste kultur dinamikak ere sozializatu zituztenak. Egunkari nagusietan baziren oihartzun egiten zirenak eta publiko zabalean ere, beraz, bretxa ireki zutenak (Javier Aranburu Donostiako La Voz de Españan, Miguel A. Astiz Bilboko La Gaceta del Norten eta abar).

Diskogintza ere zaila izateaz gain, jorratu gabeko arloa zen. Hasieran editatzeko baimenik ez. Lehen diskoak, Iparraldeko *Club du Disque Basque* eta *Goiztiri* zigiluetan agertu ziren, gero, 1965ean, Bilboko *Cinsa* (Gereño

anaiak), laster *Edigsa* katalanen itzalpean, 1968an *Herri Gogoa*, *Artezi*... Hor ere bide berriak jorratu ahala, azpiegitura fisiko eta mentalak, ohiturak, sortu, landu eta finkatu behar izan ziren.

Taldeak zerabilen hizkuntza, bestalde, sortzaile bakoitzaren araberakoa izateaz gain, funtsean literatur mailan txertatzeko ahaleginean, baina herriarenetik aldendu gabe. Arazorik ez euskalki eta mota desberdinekin. Hain zuen, garai hartan gertatu zen Arantzazuko biltzarra, 1968an. Bertan, jakina da, euskara batua aldarrikatu eta finkatu zen. Ezinbestean egin beharreko urratsa zen, noski, baina planteatu eta formulatu moduarengatik ia mende laurdenean, lorpenen ondoan, euskalki eta batuaren ustezko kontrajarriaren polarizazio eta liskar eskasa pairatu behar izan dugu. Eta begi bistakoa zen ez direla guti batasuna eta bizitasuna kontrajarriz heldu daitezkeen kalteak, euskalkiak bizirik eta tradizio landukoak direlarik arreta eta tentu handiz egin behar direla batasuneranzko urratsak, elkarbizitza bermatuz beti, areago diglosia egoeran. Aspaldisko honetan, zorionez, gauzak maila osatuagotik bideratzen ari dira, euskalkiak eta batua elkarren ondoan bizi dira, are elkar elikatzen, eta oraindik ere, hizkuntza batu, bizi eta aberastuagoa lortze aldera, nabaitzen dira prozesua optimizatzeko borondatea eta joera (hain zuzen, hori da, nik uste, *Mendebalde* elkarte honen arrazoi eta helburua).

Hizkuntzan gertatzen ari zenaren modura, edo okerrago, 70eko hamarkadan aurrera joan ahala, giro orokorra nahasiz joan zen. Metaturiko eskarmentuak ez zuela deusetarako balio zirudien, memoriaren eskasean zabarkeria, kontsigna merke eta halako beste indarrean ezarri ziren. Uste ustelak behar baino gehiago nagusitu ziren euskal dinamikan. Anartean balio zuten irizpide, joera eta jarduerak, politikazko gaitasun ez nahikoaz, axolagabeki ziren utzi bidebazterrean. Sistemak agerian eta ezkutuan eraginikako politika menderatzaileari jokoa eginez. Ataka hartan euskaldungoa orokorrean, politikazkotik kultur mailaraino, berriz ere nahi eta ezin gisako egoeran gertatu zen, iparra galdurik eta sakabanatuta. Horrek *Ez Dok Amairu* taldearen barnean ere eragin handia ukan zuen. Ondorioz, anartean izanikako elkarren arteko konfiantza eta gaitasuna mendratzen hasi ziren, trinkotasuna arrakalatzen. Eta hondarrean desegin zen.

Taldeak ez zuen hainbeste urte iraun (1965-1972), baina eragin handia izan zuen gizartean, bide asko jorraturik ildo nagusiak finkatuxe gelditu ziren. Ondotik, kantagintza estiloz ikaragarri ugaritu zen, kalitatez, azal eta mami, jantzi eta aberastu, sozietatean finkatu... Panorama kualitatiboki aldatua zen.

Amaitzeko, iradoki edo aipatu arte eta kultur lorpen eta ekarpenez gain, garai hartako irakaspenik garrantzizkoena dinamika eta mugimendu hartan zetzan gaitasuna da, sustraituak eta irekiak izateko (bertakoak eta unibertsalak), tradizioa eta modernitatea bezainbat nahia eta beharra uztartzeko, hori dena modu natural eta emankorrean bizitzeko. Bi hitzetan laburbildu beharko balitz, estrategia maila aipatu beharko litzateke, askatasuna eta erantzukizuna, bitartekoak eta helburuak propioki uztartzeko gaitasuna, eta hori beharraz bezainbat nahiaz elikaturik zegoen lurraldean: sorkuntzan.

Zoritxarrez heredentzia horren zatirik funtsezkoena ez da behar bezala transmititu, belaunaldi berrietara helarazi. Eta hori ez da gertatu kulturgintzan bakarrik. Baina, 1936-39ko gerlaren ondoren bezala, orain ere ez da dena iraungi, bada beti errautsetatik sortu eta hegan egiteko prest dagoen txoririk...

Horiek hola, ia mende laurden berantago, 1995ean, *Kafe Antzokia* zabaldu zen Bilboko erdigunean. Garaian utopiatzat jotzen zena, aurki errealitate oparoa bilakatu zen; euskara ardatz, zubi eta xede, aisialdia eta kultura uztartuz gune eta dinamika sortzailea garatzea zuen helburu. Beti ere, modu sustraitu eta irekian, integratzaileagoko bideetan barna. Horrek ahalbideratu zuen, berriz ere, amankomunagoko oinarrietan plantatua, era berezi, zabal eta eraginkorrean garatua, alderdikerien gainetik gora egin ahal izana hegan. Hain zuzen, 60ko hamarkadaren antzera, estrategia mailan, bizigarri diren bideetan, sorkuntzaren lurraldean.

Hamabost urte hauetan Kafe Antzokian garatu diren milaka kultur ekitaldietan (topaketa, hitzaldi, kontzertu, antzerki, umegune, jai...), eta bestelako aisialdi uneetan, milioitik gorako jende kopurua pasatu da bertatik. Hainbat non bilbotar guztien artean, euskaldunon artean eta Euskal Herri osoan toki erreferentzial eta nahitaezkoa bilakatu den. Nazioarteko mailan ere sekulako ospe eta oihartzuna dauka, bertatik pasa diren hainbat bisitari eta ehunka musikari eta taldeei esker.

Holako bide eta moduan ibilki, laster zen eredu bilakatu euskararen erabilpenari lurralde berriak eskaintzeko erronkan: aisialdi eta kultura uztartuz, modu informalean... eta integratzailean. Laster itxaropen frango ezarri ziren eredu horretan eta kumeak sortzen hasi ziren (Ondarroa, Durango, Elgeta, Bermeo, Donostia...). Nahiz askotan mamiari bainoago azalari lotuak izan, bada balio handiko bidea egin duenik, egiten ari denik. Edozein gisaz, garrantzizkoena da desmartxa hori hobetzeko ahalegina ez ahultzea, gai iza-

tea errore eta hutsetatik ikasteko eta dinamika sendatuz eta sendotuz era jarraikian joateko. Eta horrek arlo guztietarako balio du...

Atera daitekeen ondorioa baita eraikitzea zaila bada ere, axolagabekeriaz eta erantzukizun ezaz (burokratismoa, agintekeria... demokrazia eza) aise dela eraisten. Ez da txikia, zoritxarrez, euskaldunok horretan dugun eskarmentua. Horrengatik, ondorioztatu beharko genuke: zeinen zaila den bide eta lurralde horietan jardutea, baina, gisa berean, zeinen ezinbesteko, biziko bagara.

Zirriborraturiko kultur dinamiketan, joan den mendeko 60ko hamarkadan (*Ez Dok Amairu* eta *Arte Garaikideko Euskal eskola*) eta mende amaieran (*Bilboko Kafe Antzokia*), badago gaur egun ere baliagarri datekeen osaeta bizi-bidean eman ahal izateko gakorik aski. Eta hizkuntzaren garapenari gagozkionez, bi hitz sorkuntzaren inguruan.

Nabarmena da hizkuntzaren alde jardun behar izateak garbi uzten duela egoeraren anormaltasun... kronikoa ('jalgi hadi plazara!', Etxeparek XVI. mendean jada...). Ahaztu gabe eritasuna ez dela hizkuntzarena, hiztunei datxekiela, Ferdinand Saussure hizkuntzalari handiari jarraiki, egitate sozial bizia den erakundeari, denetan unibertsalena (eta ez bada hala, hain zuzen badakigu zergatik den: hizkuntzen -hiztunen- arteko talka, menperakuntza egoera, diglosia...). Eta diglosian, jakina, arreta eta gaitasunez egindako iker-arautzetik legezko babeseraino, corpusari eta statusari dagozkien zereginez gain -baitezpadako urrats eta lorpenak, hizkuntza guztiei zor zaizkienak-, euskal hitza 'bizitza' bilaka dadineko erronkan trabaturik gaude. Hargatik dira areago jorratu beharrak sorkuntzaren lurralde zabal eta oparoak, egunoroko erabilpen mailatik goi mailakoetaraino: arte eta literaturan, filosofia eta zientzian, hezkuntzan, unibertsitatean eta hainbat bide, komunikabide eta euskarri teknologiko berritan barna. Inondik etortzekotan, bizigarritasuna hortik etorriko baitzaio.

Izan ere, hori dateke gaur hizpide izan ditugun bi dinamika eta bideen irakaspena. Behiala eta duela 40 urte bezala egun ere, agian inoiz baino era eraginkorragoan, asmoz eta jakitez, gaitasunez, ausart eta trebe gure ahalmen eta nahiak bizi maila eta baldintzetan erabiliz eta garatuz. Dena beharrezko, zinez jauzi kualitatiboaren premian gaude-eta.